



PRENTSA OHARRA: 2026.05.05

I Baschi alla Biennale 1976/2026

Venezia, 2026ko maiatzak 6-8

Donostia, 2026ko maiatzaren 5a- 1976ko Veneziako Biurtekoan parte hartu zuenetik berrogeita hamar urte igaro direnean, Euskadi hiri horretara itzuliko da berriro *I Baschi alla Biennale 1976/2026* proiektuarekin. Kultur programa honek memoria eta praktika artistikoa lotzen ditu arteak munduarekiko konpromiso kritikorako tresna gisa duen eginkizunari buruzko gogoeta batetik abiatuta.

1976an, demokraziarako trantsizioan, ziurgabetasun handian eta askatasunen aldeko borrokaren erdian, euskal artista, musikari, poeta eta gizarte zibileko kide talde batek Veneziako Biurtekora eraman zuen bere ahotsa, artea adierazpide kolektiborako tresna bihurtuz. Eraldaketa politikoek eta aldarrikapen demokratikoen agerpenak ezaugarritutako une historiko hartan, Veneziako Biurtekoa herri baten nazioarteko proiektiorako agertoki bihurtu zen.

Oran Euskadi Veneziara itzuliko da berriro, beste ikuspegi batetik, tresna eta lengoaia artistiko berrituekin, baina uste berarekin betiere.

Diziplina anitzeko ikuspegiarekin ondu da *I Baschi alla Biennale 1976/2026* programa. Plataforma kritiko eta proiektuetara bideratutako gisa sortu da; egungo errealitateari heltzeko gaitasuna duena. Proiektu honek prozesu dinamiko gisa berreskuratzen du memoria, artxiboko materiala sorkuntza garaikidearekin lotuz, egungo erronken inguruan hausnartzeko.



Eusko Jaurlaritzak sustatu eta Etxepare Euskal Institutuak, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Musoarekin – Artium Museoarekin eta Veneziako Ca' Foscari unibertsitatearekin batera garatutako *I Baschi alla Biennale 1976/2026* programak ikuspegi akademikoak, artistikoak eta instituzionalak batzen ditu, eta profesionalen, artisten eta ikertzaileen arteko elkarrizketa bultzatzen du, elkarrekin hausnartzeko eta etorkizuna proiektatzeko. Horrela, bere memoria kulturalaren funtsezko mugarri bat oroitu nahi du ekimen honek, esperientzia hori kritikoki berrikusi eta, batez ere, sortzaileen belaunaldi ezberdinen artean elkarrizketa sustatu.

Programa

Programa Venezian hasiko da **2026ko maiatzaren 6an** (16:00etatik 20:00etara), **Palazzo Contarini della Porta di Ferro** jauregian egingo den azterketa-kasuaren irekierarekin. Maiatzaren 7an (10:30etik 18:00etara) eta 8an (10:30etik 21:30era) ere bisitatu ahal izango da. Azterketa-kasuan, 1976ko euskal parte-hartzearekin lotutako ikus-entzunezko, soinu eta dokumentu-materialak aurkeztuko dira, obra garaikideekin elkarrizketan jarriz, eta interpretazio eta ikerketa-ikuspegi berriak sortzeko gai den artxibo biziaren forma hartuko du.

Proposamenak, halaber, orainari forma eman dioten genealogiak aztertzeke aukera eskaintzearekin batera, ikerketaren aldeko apustu sendoa islatzen du. Ondorengo lan zinematografikoak eta mugimenduzko irudiz sortutakoak biltzen ditu: *Ama Lur*, Nestor Basterretxea eta Fernando Larruquertena; Jose Antonio Sistiagaren *...ere erera baleibu izik subua aruaren...*, artistak berak eskuz margotutako milaka fotogramaz osatutako filma; José Angel Rebolledoren *Arriluce*, eta Jose Mari Zabalaren *Axut* lan independentea.

Garaiko euskal musikaren berrikuntza experimental eta poetikoa *Ikimilikiliklik*-en soinu-zati batekin iradokitzen da; Joxean eta Jexux Artzek Mikel Laboarekin elkarlanean egindako performancea, jatorriz 1976an aurkeztua.



Azterketa-kasuak Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren – Artium Museoaren bildumako lanak ere aurkezten ditu: *El juicio de Burgos (manifestación)* (1971), **Mari Puri Herrero**, eta *Dobla* (2021), **Damaris Pan**.

Maiatzaren 7an, 10:00etan, **inaugurazio ekitaldia** egingo da **Scuola Grande San Giovanni Evangelista** eraikinean, **Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren eskutik**. Imanol Pradales lehendakaria ordezkatu du ekitaldian. Leku horretan bertan egin zen 1976an Euskadiren egoerari buruzko konferentzia politikoa.

Era berean, maiatzaren 7an, **jardunaldi akademiko** bat egingo da 9:30etik 16:40era **Veneziako Ca' Foscari Unibertsitateko Santa Margherita Auditoriumean**, *Euskadi Veneziako Biurtekoan, 1976: atzera begira, aurrera egiteko* izenburupean. Santa Margherita Auditoriuma, lehen Cinema Moderno izenez ezaguna, 1976ko Biurtekoan euskal artisten hainbat film proiektatu ziren lekua da (orain Palazzo Contarini jauregian aurkeztuko diren lanak, hain zuzen).

Monika Madinabeitiak (Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria), Elena Roserasek (Artium Museoko Artxibo Saileko arduraduna) eta Miren Vadillok (artearen historialaria eta EHUko irakaslea) osatutako batzorde akademiko batek komisariatutako jardunaldi honek, euskal testuinguruak artearen eta pentsamenduaren bidez nazioarteko eszenan zer-nolako papera izan duen aztertuko du, eraldaketa sozialak, praktika artistikoak eta identitate- eta irudikapen-kontuak jorratuz.

Parte hartuko duten hizlarien artean daude Peio Aguirre eta Leire Vergara komisarioak, baita Joseba Zulaika, Beñat Sarasola eta Alessandro Mistrorigo idazle eta ikerlariak ere.

Jardunaldi akademikoa 16:00etan **Tripak kolektiboak egingo duen performance** batekin amaituko da.



Programak arratsaldean jarraituko du 18:30ean Palazzo Contarini jauregian egingo den azterketa-kasuaren inaugurazio-ekitaldiarekin. Ondoren, **Itziar Okariz artistaren performance bat** izango da, programako espazioen artean elkarrizketa ezarriko duena.

Maiatzaren 8an, Palazzo Contarini jauregian bertan, **Tripak kolektiboaren beste performance bat** izango da 18:30ean, praktika artistiko historiko eta garaikideen arteko elkarrizketa are gehiago indartuz.

I Baschi alla Biennale 1976/2026 ekimena ikerketa-prozesu zabalago baten parte da, eta proiektua Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan – Artium Museoan aurkeztuko da, Gasteizen.

[DESKARGATU PROGRAMA](#)

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus